

## LOUIS EDOUARD CESTAC DOHATSUA

Maiatzaren 31, Baionako katedralean, Louis Edouard Cestac ofizialki Dohatsuen lerroan ezarria izanen da. Diosesako besta haundi bat, Angeluko serorentzat, -Mariaren zerbitzariak eta Bernardinak-, bozkario eta bultza eder bat, denentzat lekukotasun bat eta Jainkoa gorestekoa aukera.

Eta galdea hau da : Zer da dohatsu izaitea ? Nor da dohatsu eta zertako, eta zergatik ?

Eliza katolikoak du, Aita sainduaren dekretu baten bitartez, Dohatsuen lerroan norbait ezartzen. Egintza horren bidez, giristino baten bertuteak eta haren bizi molde lekukotasungarria, ditu Elizak ezagutzen, onartzen. Ondorioz, debozio publikoa sortu ditake, beila, otoitz, galde bereziak eta abar.

Horrat heltzeko, prozedura luze eta konplexu bat segitzen da, urte frangoz idatziak, lekukotasunak, ekintzak, bertuteak analizatzeko. Mirakuilu bat galdetua da ere. Horiek oro ikusteko, historialari, teologo, mediku, apezpiku eta kardinale biltzen dira eta urteren buruan, (hamar, ogoi...) beren lanaren fruitua Aita sainduari presentatzen diote, hunek baitu erabakia hartzen.

Dohatsutasun horren helburua da girixtinoeri lekukotasun eta etsenplu bat emaita. Jesusen irakaskuntzaren arabera bizitzeko, bidea zaila zauku bat baino gehiagotan : bertzeak maita bere burua bezala, pobreaki bizi direneri eman eta duguna bertekin partekatu, gaizkia egin daukunari eta etsaiari barkatu, hurbileko laguna errespetatu gaizkirik erran gabe, kritikatu gabe, Jainkoa maitatu eta ospatu, ... Bide hori hartzea eta segitzea entseiatu diren guziek ongi badakite ez dela batere errexa egunero hola bizitzea. Beraz, Elizak bere laguntza ekartzen du, sakramenduen bidez, girixtino guzien otoitzan, eta jenden etsenpluetan.

Etsenplu bat ez da ezin egin den zerbait ; alderantziz, denek egin dezaketen zerbait da. Eman dezagun orain Dohatsu izanen den Louis Edouard Cestac. Zergatik da dohatsuen lerroan ezarria izanen ? Zoin dira haren bertuteak ? Apez eta erakasle Larresoron, gero apezpikutegian pobren laguntzaren arduradun. Lan horiek begiak, bihotza, adimendua idekiak egin ditu, erran nahi baita bere izaite osoa duela pobreeri eman. Umexurtzak artatu dituelarik, laguntza eta goresmenak ukan ditu ; lizunkerian bizi ziren neskatxak gerizatu dituelarik, hek berak galdeginik, kritika eta akusamenduak ditu bildu. Eta egun batzuek barne, neskatxak oldartu dira zeren lana, obediencia, jauntzi berdina ziren haren tresnak bertze bizitzeko manera bat eremaiteko. Dudatu du eta kontseilu galdetu du. Frantxiskano batek erran dio : « irau, otoitz egin, igurikatu ». Laster neskatxan taldea haunditu da eta ez zuen etxerik heien ongi errezebizeko. Angelun baserri bat erosi du, bainan nola pagatu ? Jende batzuen laguntzak eta gazte horien lanak dute etxea ordaindu, bainan zenbat urteren buruan ! Hor ere, zenbat duda ! Buglose hirirat joan zen beilaz, Ama Birjinari dirua galdetzeko, eta erantzun hau ukan zuen : « ene izpiritua baizik galda ». Zer da Mariaren izpiritua ? Cestac jaunaren konprenitzeko manera hau izan zen : konfiantza egitea, Mariaren obra zela eta ez bere obra. Beraz Mariaren zerbitzari zen.

Eskola ainitz ideki ditu baserrialdetan, haur guziek ukan dezaten ikasteko parada zen haren leloa. Berak ikasi du beti, bai erosi zuen baserriaren lurrak ontzeko, bai harearen lotzeko pinuak ereinez, bai bokategi bat eraikitzeko, eta abar... Bere gogoetak beti bertzeri buruz zituen, umexurtzen eta neska gazten bizi moldea hobetzeko, haurren ikastetxeak eta ikaskuntzak hobetzeko.

Ez da bakarrik egon. Ez zuela deus onik eginen bakarrik ongi bazakien. Donibane Garaziko neska gazte bat, Gaxuxa Bodin etorri zitzaion hastapenetik ; gero Baionako bertze emazte batzu eta bere arreba Elix. Baserriko lanak ikasteko bera Angers ondorat joan zen, La Melleray-ko frailekin. Angeluko baratzezainak zenbat burla eta trufa egin zioten hastapenean erranez : « xoriak eta haizea ongi bazkatzen ditu », bainan ikusi zuten ere denborarekin haren ekoitza ainitz hobea zela ! Eta laborantzako lehiaketaren lehendakari izendatu zuten. Napoleon III garrenak berak ohoratu zuen.

Horiek oro ez ziren aski, umexurtx eta neskatxen eguneroko bazkari, afari eta gosaria segurtatzeko eta heien laguntzaileak ere zenbat gose pasatu dituzte ! Eta orduan norbait, bat batean etortzen zen, lau kilo lur sagarrekin, edo gaztainekin, eta ogi haundi batekin, eta elgarrekin partekatzen zuten. Bertzetan, hornitzaileak ziren atejoka, noiz kobratuak izanen ziren galdetzer. Maizenik Aita Cestak-ek ez zioten erantzunik emaiten, baina gordetzen zen, dirurik gabe izan gatik. Zer ahalgea ! Zer umiltasuna ! Frantxiskanoak erran zion : « irau, otoitz egin, igurikatu ».

Hauek izan dira Cestak-en bertuteak: irau, otoitz egin, igurikatu. Erran nezake, horiek direla egun guzietako bertuteak, denen eta bakotxaren bertuteak, Jainkoari buruz hartua den bidean. Louis Edouard Cestak ez da izan bere buruaren zerbitzari, baina Mariaren zerbitzari, haurrak eta gazteak lagunduz. Berak errepikatzen zuen ez zela haren obra baina Ama Birjinaren obra.

Horra zergatik Dohatsuen lerroan ezarria den, denen laguntzeko bide hortan.

Maite Irazoqui